

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen dekretua

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 125.1. artikulua honako hau xedatzen du:

Alkateak Tokiko Gobernu Batzarreko kide diren zinegotzien artean izendatuko ditu bera ordeztuko duten alkateordeak, izendapenaren hurrenkerari jarraiki, kargua hutsik geratu bada, bera ez bada edo gaixorik badago.

Lege-arau horrek aitortzen dizkidan aginpideak baliaturik hau,

Xedatzen dut

Lehena. Udalbatza honetako zinegotzi eta Gobernu Batzarreko kide Maider Etxebarria García lehen alkateorde izendatzea.

Bigarrena. Udalbatza honetako zinegotzi eta Gobernu Batzarreko kide Ana Oregi Bastarrika bigarren alkateorde izendatzea.

Hirugarrena. Udalbatza honetako zinegotzi eta Gobernu Batzarreko kide Juan Felipe García Miravalles hirugarren alkateorde izendatzea.

Laugarrena. Udalbatza honetako zinegotzi eta Gobernu Batzarreko kide Iñaki Gurtubai Artetxe laugarren alkateorde izendatzea.

Azken xedapena. Dataren egunean jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 18an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE